



OÑATI
dabilen herria



OÑATIKO UDALA

ALKATE DEKRETUA

Nik, Iزارo Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

1985eko 2568/1986 errege dekretuaren 79. artikulua honakoa dio:

“Presako bilkura bereziak dira alkateak edo lehendakariak deitutakoak, baldin eta aztertu beharreko gaiaren edo gaien presak ez badu uzten bilkura bereziko deialdia egiten apirilaren 2ko 7/1985 Legea eskatzen duen bi egun baliorduneko aurrerapenaz.

Kasu horretan, gai-zerrendako lehen puntu gisa sartu behar da Osoko Bilkurak presari buruz duen erabakia. Osoko Bilkurak ez badu halakorik atzematen, bilera amaitutzat emango da jarraian.”

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

Erabaki dut:

Udalbatzaren ez-ohiko eta premiatzko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2021eko urriaren 21ean, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenetan. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Onartzea, hala badagokio, bilkuraren premia.
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: 2022rako ordenantza fiskalen aldaketa onartzea, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko urriaren 19an.

Jakinaraz bekie berehala Udalbatzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gai-zerrendan jaso diren aztertu beharreko gaien buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2021eko urriaren 20an
Alkateak
Izaro Elorza Arregui